

# URDUÑAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA (2020-2022)



## Laguntzailea



## Egilea



### 1. or.

Urduñako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana (2020-2022)

Plan honek Urduñako Udalak 2007tik garatzen duen ibilbideari jarraipena ematea dauka helburu. Une horretan, hain zuzen ere, *Urduñako Emakumeen eta Gizonen Egoerari buruzko I. Diagnostikoa* egin zen, eta bere emaitzek Udalbatzak 2009ko urrian onartu zuen *I. Plan Estrategikoko* estrategiak zehaztu zituzten.

Prozesu hau egitean eta *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Ordenantza* onartzean, behin betiko bultzada eman zen, udalak udalerriko emakumeen eta gizonen berdintasunarekin duen konpromisoa sendotzeko.

Une honetan, *Berdintasunerako 2015-2017ko II. Plana* ebaluatu ondoren, Urduñako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2020-2022ko III. Plana aurkezten da.

Urduñan, 2019ko abenduaren 30ean.

## AURKIBIDEA

|                                                |     |
|------------------------------------------------|-----|
| 1. ERREFERENTZIAKO ESPARRUA .....              | 4   |
| 2. PLANA EGITEKO METODOLOGIA .....             | 11  |
| 3. EZAUGARRIAK, EGITURA eta ORIENTAZIOAK ..... | 18  |
| 4. JARDUKETARAKO PLANA .....                   | 25  |
| 5. KUDEATZEKO SISTEMA .....                    | 107 |
| 6. ERANSKINAK .....                            | 117 |

---

# ERREFERENTZIAKO ESPARRUA

---

III. Plan hau egiteko, nazioartean, estatuan, maila autonomikoan eta tokian-tokian ezarri beharreko arauzko esparruetan zehaztutako gidalerroak eta orientazioak hartu dira kontuan.

- Emakumeen aurkako Era Guztietako Bereizkeria Desagerrarazteko Konbentzioa (CEDAW) (1979).
- Emakumeen eta Gizonen Tokiko Bizimoduko Berdintasunerako Gutun Europarra (2006).
- Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.
- Urduñako Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Ordenantza.

**Emakumeen aurkako Era Guztietako Bereizkeria Desagerrarazteko Konbentzioa (CEDAW) (1979).** Nazio Batuen Erakundeak (NBE) zenbait arautegi eta programa garatu ditu, estatu kideetan eta bertan diharduten administrazioetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak sustatzeko. Estatu espainolak konbentzioa berretsi duenez, behar besteko neurrien ezarpenerako konpromisoa hartu du, era guztietako bereizkeria desagerrarazteko eta instituzio publikoek emakumeen aurkako era guztietako ez-bereizkeria baliabide egoki guztien bitartez bermatzen dutela ziurtatzeko:

*“Emakumeen eskubideen babes juridikoa, gizonen eskubideak bezalakoak izan daitezten, eta, auzitegi nazionalen edo eskudunen eta beste instituzio publiko batzuen bitartez, emakumeak era guztietako bereizkeria-ekintzen aurka benetan babestuta daudela bermatzea”.*

Horrez gain, behar besteko konpromisoa ere hartzen da, agintariek eta instituzio publikoek betebehar hori bermatzeko lan egin dezaten eta bereizkeriazko jarduerak garatzen dituzten eta berdintasunaren printzipioa babesten ez duten pertsonen, erakundeen edo enpresen aurkako neurriak ezarri daitezten.

CEDAW ez ezik, munduko biltzarrak ere badira garrantzitsuak (Mexiko 1975, Kopenhage 1980, Nairobi 1985 eta Pekin 1995), nazioarteko berdintasunerako estrategien eta politiken esparruan, haien bidez nazioen arteko hitzarmenak lortzeko ahalegina egiten delako, emakumeen eskubideek bizitzako arloetan, hau da, arlo ekonomiko, sozial, zibil, politiko eta hezkuntzakoan dituzten oztopoak desagerrarazteko eta politika publikoei begira aurrerakuntza adierazgarria lortzeko. Era berean, estatu kideetako jarduketan eta planen garapena ere bultzatu dute.

1995etik, hiru berrikuspen egin dira, Bejingeko Ekintza Plataformaren ezarpena gobernuarekin ebaluatzeko eta lortu gabeko aurrerakuntzak zein erronkak antzemateko.

#### **Emakumeen eta Gizonen Tokiko Bizimoduko Berdintasunerako Gutun Europarra.**

Europako tokiko eta eskualdeko elkarteak ditu helburu, eta honako hauxe eskatzen die: sinatzea, emakumeen eta gizonen tokiko bizimoduko berdintasunaren printzipioaren inguruko jarrera jendaurrean agertzea eta gutunean zehaztutako konpromisoak euren lurraldean ezartzea. 2006ko maiatzean, Europako Udalen eta Eskualdeen Kontseiluak eta bere erakunde kideek (EUDEL - Euskadiko Udalen Elkarte dago haien artean) emakumeen eta gizonen berdintasun handiagoaren aldekoa ere baden arauzko agiri hau eman zuten jakitera. Urduña EUDEL-en integratuta dagoen udala denez, gutun horretan zehaztutako printzipioak ezartzeko konpromisoa dauka. Haien artean, honako printzipio hau dago:

***6. Berdintasunaren arloan euren aurrekontua duten ekintzarako planak eta programak ezinbesteko tresnak dira, emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egiteko.***

*Tokiko eta eskualdeko gobernuak berdintasunaren arloko ekintzarako planak eta programak egin behar dituzte, haien ezarpenerako behar diren bitarteko eta baliabide finantzario eta pertsonalen bidez.*

**Emakumeen eta Gizonen Benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.** Bertan adierazten den bezala, estatuko, maila autonomikoko eta tokiko politika publikoen orokortasunarekin dauka zerikusia. Azken horiek, gainera, berdintasunerako eskubidea kontuan hartu beharko dute euren eskumenen erabileran, eta, horretarako, gainerako administrazio publikoekin lan egin beharko dute.

**Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea** gaur egun lerrun handiena duen araua da, eta berdintasunerako helburuak zein proposamenak zehazten ditu EAEko zenbait maila administratibotan. Haien artean, tokiko administrazioak daude, eta xehetasunez azaltzen da zer eginkizun garatu behar dituzten emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan. Besteak beste, berdintasunerako planak edo programak onartzea da haien eginkizuna, legean eta legealdi bakoitzeko berdintasunerako plan orokorretan zehaztutako jarduketa-lerroak eta gidalerroak kontuan hartuta.

I. tituluko 3. artikuluan, behar besteko printzipio orokorrak zehazten dira, euskal botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan garatutako jarduketa arautzeko eta orientatzeko. Horren ondorioz, Urduñako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana orientatzen dute, eta honako hauexek dira: tratu-berdintasuna, aukera-berdintasuna, aniztasunaren eta desberdintasunaren errespetua, generoaren ikuspegiaren integrazioa, ekintza positiboa, sexuaren araberako zereginen eta estereotipoen desagertzea, ordezkartza orekatua eta koordinazioa zein lankidetzak.

Udalei berez dagokiena kontuan hartuta, I. tituluko 7. artikuluan, tokiko administrazioarentzako zenbait eginkizun zehazten dira. Honako hauexek dira, besteak beste: *“generoaren ikuspegia integratzeko egiturak, programak eta prozedurak egokitzea eta sortzea”*, baita beste neurri batzuk ere; esate baterako, ekintza positiborako neurriak betearaztea; estatistikak egokitzea, desberdintasuneko egoerak zein diren jakiteko; tokiko arautegiaren eta bere ezarpenaren jarraipena egitea emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren arabera...

Era berean, lege bereko 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, tokiko administrazioek euren egiturak egokitu behar dituzte, gutxienez euren jarduketarako lurralde-eremuetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko, antolatze, aholkatzeko eta ebaluatze erakunde, organo edo unitate administratibo bat eduki dezaten.

**Urduñako Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Ordenantza** tokiko gobernuak berdintasunaren arloan jarduteko daukan oinarrizko arauzko agiria da, eta Urduñako emakumeen eta gizonen berdintasunerako arauzko esparrua eta garapena zehaztea du helburu, udalek arlo horretan dituzten eskumenen arabera.

Ordenantza hamahiru kapitulutan egituratuta dago, eta hogeita hamar artikulua ditu. Udal-erakundearen egituraren zein jardunbidean dauka eragina, baita gizartearen nahiz herritarren proiektzioan ere. Honako hauexetan ezarriko da: udal-administrazioa, udalaren menpeko edo berarekin lotutako organismo autonomoak eta erakunde publikoak eta udalarekin lankidetzarako kontratuak edo hitzarmenak sinatzen dituzten edo esleitutako laguntzetako edo diru-laguntzetako onuradunak diren erakunde pribatuak.

|                          |
|--------------------------|
| <b>ESPARRU TEKNIKOAK</b> |
|--------------------------|

Honako hauexek izan dira plan hau egiteko erreferentziako agiri teknikoak:

- Berdintasunerako Tokiko Planak Diseinatzeko, Kudeatzeko eta Ebaluatze Gidaliburua. Berdintasuna. EUEL
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana. EMKUNDE.

**Berdintasunerako Tokiko Planak Diseinatzeko, Kudeatzeko eta Ebaluatze Gidaliburua**

Gidaliburu hau plan hau egiteko laguntza-tresna da, behar diren tresnen eta prozesuen bitartez plana antolatze eta egiteko orientazioa eskaintzen duelako.

Zenbait gomendio direnez, nolabaiteko autonomia-maila eskaintzen du, prozesu hau garatzeko eta EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Planean zehazten diren gidallerroetara egokitu ahal izateko.

### **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana**

Lehen esan den bezala, 4/2005 Legean xedatzen da berdintasunerako tokiko planek legean bertan eta legealdi bakoitzeko berdintasunerako plan orokorretan zehaztutako jarduketa-lerroak eta gidallerroak kontuan hartu behar dituztela.

Gaur egun, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana indarrean dagoenez, Urduñako Berdintasunerako III. Plana bat dator plan horretan zehazten diren gidallerroekin, udalerriko bertako errealitatearen ezaugarriak eta bereizgarritasunak kontuan hartuta.

VII. Planean zehazten den helburu nagusia, plan honek kontuan hartu duenez, balioen aldaketa da, eta zeharka nahiz modu berezian jorratzen da zenbait programaren bitartez. Balioen aldaketa horrek zeresana dauka heteropatriarkatuaren esparruan emakumeen eta gizonen desberdintasunei eutsi eta justifikatu egiten dituzten jarduketa guztietan. Hain zuzen ere, balio berrien aldeko apustua egiten da, emakumeen zein gizonen berdintasuna, emakumeen giza eskubideen errespetua eta herritartasunaren sustapena garatzeko eta kontuan hartzeko.

Horrez gain, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak zenbait printzipio sakondu eta lehenetsi egiten ditu, eta, beste administrazio publiko batzuen artean, tokian tokikoek hartu beharko dituzte kontuan. Honako hauexek dira plan honen helburuen eta ekintzen diseinua orientatu duten printzipioak:

- Paradigma feminista
- Generoaren ikuspegia
- Elkargunetasuna
- Emakumeen jabekuntza
- Giza garapen jasangarria

#### **9. or.**

Urduñako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2020-2022)

Horrez gain, besteak beste, VII. Planak honako hauexen inguruan zehazten duen egitura hartu behar da erreferentzia moduan, plan honi begira: batetik, antolakuntza eta barruko jardunbidea aldatzeko erronkak proposatzea eta nabarmentzea lehentasunezko zat jotzen duten helburuak; eta, bestetik, izaera sozial nabaria dutenak. Bata eta bestea bi programa hauetan islatzen dira:

#### **A) Gobernu onerako programak eta neurriak**

##### **Gobernu ona**

- Generoaren ikuspegiaren integrazioa udalaren kudeaketan eta jarduketan.

#### **B) Berdintasunaren arloko jarduketako ardatz estrategikoak**

##### **Emakumeen jabekuntza**

- Emakumeak, eskubidedun subjektuak eta **EUREN** zein **DENEN** historiako, politikako eta kulturako protagonistak.

##### **Ekonomia eta gizarte-antolakuntza**

- Ekonomien eta gizarte-antolakuntzaren eraldaketa, emakumeen eskubideak bermatzeko.

##### **Emakumeen aurkako indarkeria**

- Emakumeek eta bizirik dirauten beste biktima batzuek, haien seme-alabek, esaterako, haien aurkako indarkeriarik gabeko bizitza bizitzea.

---

# PLANA EGITEKO METODOLOGIA

---

## **11. or.**

Urduñako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana (2020-2022)

Plana egiteko metodologiari dagokionez, nabarmendu egin beharra dago BERDINSAREA Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskal Udalen Sareak zehaztutako lan-tresna izan dela erreferentziako esparrua, *“Berdintasunerako Tokiko Planak Diseinatzeko, Kudeatzeko eta Ebaluatzeko Gidaliburua”*, hain zuzen ere, bere helburua udal eta mankomunitateentzako laguntza-tresna izatea dela kontuan hartuta.

Prozesu hori 4 faseetan garatu da:


- I. Berdintasunerako II. Plana ebaluatzea eta Urduñako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Diagnostikoa egitea.
- II. Planaren zirriborroa egitea.
- III. Politikariekin, teknikariekin eta Parekotasun Batzordearekin erkatzea.
- IV. Behin betiko plana egitea.

**12. or.**

Urduñako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2020-2022)

**I. fasea: Berdintasunerako II. Plana ebaluatzea eta Urduñako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Diagnostikoa egitea**

**BERDINTASUNERAKO II. PLANA EBALUATZEA**



## EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

Berdintasuneko teknikariarekin, Berdintasuneko zinegotziarekin eta alkatearekin komunikatzea, udaleko sail edo zerbitzu bakoitzean funtsezkoak diren pertsonak identifikatzeko, euren jarduketa-eremuagatik eskatutako informazioa eta agiriak eskuratzetik dutenean.

Identifikatutako pertsonekin komunikatzea, diagnostikorako behar diren datuak eskatzeko.

Informazio-iturriak eta agiri garrantzitsuak aztertzea eta sexuaren arabera sailkatutako datu eskuragarriak ez duten arloak edo ustiapenean zein analisian generoaren ikuspegia kontuan hartzen ez duten arloak antzematea.

Informazio-iturri osagarri berriak eta funtsezko eragileekiko komunikazio berriak identifikatzea, sexuaren arabera sailkatutako daturik ez duten arloak edo analisian generoaren ikuspegia kontuan hartzen ez duten arloak osatzeko.

Berdintasunari buruzko diagnostikoaren txostenaren zirriborroa egitea.

Urduñako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Diagnostikoaren txostenaren azken idazketa egitea.

III. Planeko helburuak eta ekintzak ezartzeko lehentasunezko arloak zehaztea.

## II. fasea: Planaren zirriborroa egitea

Orain arte antzemandako lehentasunezko jarduketa-arloak eta oztopo nagusiak identifikatutakoan, Berdintasunerako III. Planaren zirriborroa idatzi da, 4/2005 Legean eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean zehaztutako esparru legegilea eta teknikoa kontuan hartuta.

Behar besteko egitura ezarri da, eta, bertan, honako hauexekin lotutako faktoreak hartu dira kontuan: ardatz estrategikoak, programak, ekintzak, inplikaturako sailak eta eragileak, kronograma eta jarraipenerako nahiz ebaluaziorako adierazleak.

## III. fasea: Politikariekin, teknikariekin eta Parekotasun Batzordearekin erkatzea

Planaren zirriborroa egindakoan, erkapenen fasea hasi da. Zenbait saiotan egin da, eta, ebaluaziorako prozesuan bezala, arlokako eta profilkako banaketa berberaren arabera garatu da. Hau da, teknikariekin egin da saioa, politikariekin egin da saioa eta Parekotasun Batzordearekin egin da saioa.

Saio horiekin batera, teknikariekin erkatzeko saioaren ostean, korporazio politikoko zenbait kidek osatutako lan-talde berezia sortu behar izan da, hasieratik lehentasunezko jarduketa-arlotzat hartu delako konpromiso eta adostasun politikoaren premia. Horretarako, Udalbatzako kide guztiei dei egin zaie, lan-talde horretan parte hartu dezaten. Azkenean, honelaxe osatu da talde hori:

- Alkatea. Itziar Biguri
- Berdintasuneko zinegotzia. Soledad Lezameta
- Berdintasuneko teknikaria. Amaia Beitia
- Zinegotzia. José Ramón González Iglesias

Behar besteko ahalegina egin da, saioetara ahalik eta jende gehien joan dadin. Dena dela, kasu batzuetan, talde aholku-emailarekin zerikusirik ez duten zenbait arrazoiengatik, ez da lortu deitutako jende guztia bertaratzea.

Saio bakoitzean, metodologia desberdina erabili da, talde bakoitzaren ezaugarrietara eta haien jarduketa-arlorara egokitzeke. Partaidetzazko eta taldekako dinamikak garatu dira, eta, bertan, ahoz edo galde-sortaren bidez, parte-hartzaileek aurreikusitako ekintzei buruz duten iritzia bildu dira. Horrez gain, beste pertsona batzuekin komunikatzeko bideak ere ireki dira, bertaratzeke aukerarik izan ez dutenekin baina planaren zirriborroa jaso dutenekin nahiz parte hartu dutenekin, epealdi zehatz batean erkapenerako saioen ostean sortu ahal izan diren faktore berriak zehazteko.

Hona hemen saioetan jorratu diren gaiak:

- Proposatutako neurriak udalerriko errealitatera egokitzea.
- Inplikaturako sailak eta eragileak identifikatzea eta egokitzea.
- Ekintza zehatzen garapenari begira antzemandako ustezko oztopoak zein diren adieraztea.
- Egiaztapenerako mekanismoen garrantzia aitortzea.
- Beste ekarpen batzuk kontuan hartzea.

Erkatzeko prozesu hori garatu ondoren eta ekarpen guztiak jaso eta planaren zirriborroan txertatu ostean, erkapenerako beste saio bat egin da prozesu honetan sortutako lan-taldearekin.

Jasotako ekarpenak oso onak izan dira, udalean garatzen den barruko lan-metodologiarekin eta jardunbidearekin zerikusia duten faktoreei dagokienez eta Urduñako herritarrentzako berezko jarduketari, ezaugarriei eta dinamikei dagokienez.

#### IV. fasea: Behin betiko plana egitea

Lan-taldearekin azken erkapena egin ostean, agiri hau idatzi da, hau da, hiru urteko indarraldia edukiko duen eta, aurreikuspenen arabera, 2020tik 2022ra abian jarriko den behin betiko lan-plana.

---

# EZAUGARRIAK, EGITURA eta ORIENTAZIOAK

---

**18. or.**

Urduñako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana (2020-2022)

Hona hemen III. Planaren ezaugarri nagusiak.

– **Jarraitasuna**

Plana egiteko orduan, II. Planaren ebaluaziotik eta Udalerriko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Diagnostikotik ateratako emaitzak hartu dira kontuan. Horrez gain, udalak 2009. urtetik garatutako ibilbidea ere hartu da kontuan, urte horretan lehen urratsak ematen hasi zirelako udalean berdintasuna ezartzeko.

Hori dela eta, hainbat ekintza aurretiazko lan horri jarraipena ematen saiatzen dira. Horretarako, jarraitasuna eman eta, batez ere, Urduñako Udaleko jarduketa-arlo guztietan generoaren ikuspegia zeharkako egitea lortzeko behar diren mekanismoak sendotzen dira.

– **Konpromisoa eta prestakuntza**

Konpromiso politikoa eta teknikarien inplikazioa plan honetan zehaztutako lehentasunezko helburuetakoak dira. Beraz, ezinbestekotzat hartu da teknikariek eta politikariek garatu beharreko lan-tresna dela kontuan edukitzea. Gainera, berdintasunaren eta generoa zeharkako egiteko prozesuen arloan dituzten jakintzak garatzen ari dira. Horrexegatik, hain zuzen ere, prozesu honetan, erkapenerako lana garatu da teknikariek, politikariek eta Parekotasun Batzordearekin, eta, bertan, faktore pedagogikoak eta sentsibilizaziorakoak hartu dira kontuan, planaren eta bertan xehetasunez zehazten diren neurrien erabilerarako behar diren funtsezko jakintzak finkatzeko oinarriak ezarri daitezzen eta, horrela, erraz erabiltzen den tresna eskuragarria izan dadin.

– **Berdintasuna zeharkako egiteko prozesua**

Plan honen erronka nagusietakoa udaleko jarduketa-eremuan berdintasuna zeharkako egiteko zutabeak finkatzea da.

Honako haxe proposatzen da planean: udalarekin berarekin koordinatzen eta lan egiten duten tokiko eragile eta erakundeek, teknikariek eta politikariek garatzen duten zereginean esku hartzea eta herritarrentzako neurriak sendotzea, emakumeen eta gizonen berdintasuna benetan ezartzeko eta, horren ondorioz, balioak aldatzeko.

Udala osatzen duten maila eta arlo guztietan berdintasunaren printzipioa ezartzeko lana nolakoa den jakinda, lehentasunezko helburuak zehazten dira, berdintasunaren printzipioa zeharka ezartzeko estrategia gehikorra sendotu ahal izateko.

- **Indarreko legezko, arauzko eta teknika-arloko esparrura egokitzea.**

Planean, 4/2005 Legean zehaztutako aginduak hartzen dira kontuan, baita tokiko administrazioaren esparruan berdintasunaren printzipioa ezartzeko prozesua arautzen duten printzipioak ere.

Hori dela eta, bertan proposatutako lan-ibilbideak EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean zehazten diren gidalerroak ditu osagai, honako hauexei dagokienez bertan zehaztutako lerroak kontuan hartuta: ardatz estrategikoak, helburuak, ekintzak eta ebaluaziorako adierazleak.

- **Berdintasunerako egiturak indartzea.**

Besteak beste, honako haxe indartzea da ardatz estrategikoetakoa: udaleko bertako berdintasunerako egiturak, hau da, *Sailarteko Berdintasun Taldea*, eta herritarrekin ezarritako zubiak sendotzen dituzten egiturak, hau da, *Parekotasun Batzordea*.

- **Malgutasuna.**

Plan honetan, jarraipenerako eta ebaluaziorako zenbait tresna eskaintzen dira, plana garatzean eta abian jartzean sortu daitezkeen oztopoak antzemateko. Hori dela eta, agiria bizi bezain malgua izango da, eta udalerriko errealitatera nahiz berezko prozesuetara egokitzeko gaitasuna edukiko du.

## PLANAREN EGITURA ETA ORIENTAZIOAK

Jarduketarako Plana bi zatitan dago egituratuta:

- ✓ Lehenengo zatia: plangintza.
- ✓ Bigarren zatia: adierazleak eta egiaztatzeko mekanismoak.

### LEHENENGO ZATIA: PLANGINTZA

Lehenengo zati honetan, ardatz estrategikoak azaltzen dira xehetasunez, baita jarduketarako programak, lortu beharreko helburuak eta horretarako erabilitako ekintzak ere.

Horrez gain, aurreikusitako ekintza bakoitzean, inplikaturako sailak eta eragileak ere azaltzen dira xehetasunez; eta, azkenik, tenporalizazioa edo kronograma.

**Ardatza:** ardatz hauek bat datoz Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean zehaztutakoekin.

**Programak:** ardatz bakoitzean, jarduketarako zenbait programa azaltzen dira.

| II. ARDATZA. EMAKUMEEN JABEKUNTZA                                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |                                                                                            |      |      |
|--------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------|------|------|
| 1. PROGRA VIA. EMAKUMEEN JABEKUNTZA PERTSONAL ETA KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA |                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |                                                                                            |      |      |
| Helburuak                                                                | Ekintzak                                                                                                                                                                                                                                                                                                      | Inplikaturako sailak eta eragileak                                                         | 2020 | 2021 |
| Emakumeek feminismoak uñan duten esana aitortzeko ari jarraipena atea.   | 1.1.1. <i>Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna</i> , oroitzen jarraitzea. Horretarako, agerian jartzeko jarduera publikoak garatzea, apurka-apurka ahalik eta herritar gehien (elkarteak, saltegiak, tabernak, tokiko eragileak...) eta udaleko bertako sail zein zerbitzu gehien inplikatzeko.         | Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea<br>Sail guztiak<br>Kultura, Kirola eta Gazteria |      |      |
|                                                                          | 1.1.2. Urduñako emakumei buruzko erakusketak eta hitzaldiak egitea, dibertsitatea eta errealitate desberdinak agerian jartzeko: emakume baserritarrak, ekintzaileak, kirolariak, artistak, dibertsitate funtzionalak... Bertan, gainera, lan berezia egitea emakume migratuak agerian jartzeko zereginarekin. | Berdintasun Saila<br>Sustapen Ekonomikoa<br>OGZ<br>Kultura, Kirola eta Gazteria            |      |      |
|                                                                          | 1.1.3. Emakumeek historian duten zeregina agerian jartzea eta, horretarako, generoaren ikuspegia kontuan hartzea udalak oroimen historikoari buruz garatzen dituen jardueretan.                                                                                                                               | Oroimen Historikoa<br>Berdintasun Saila<br>Kultura, Kirola eta Gazteria                    |      |      |
|                                                                          | 1.1.4. Emakumeek udalerriko jaietan duten aitortza-maila handitzea.                                                                                                                                                                                                                                           | Kultura, Kirola eta Gazteria<br>Berdintasun Saila                                          |      |      |
|                                                                          | 1.1.5. Emakumeek udalak antolatutako adierazpide kulturetan daukaten agerpena sustatzea (musikaldiak, azokak, erakusketak, herri-kirolak...).                                                                                                                                                                 | Kultura, Kirola eta Gazteria<br>Berdintasun Saila                                          |      |      |

**Helburuak:** helburu zehatzek lan-lehentasunak antolatzen dituzte, eta, gero, neurri zehatzetan egituratzen dira.

**Ekintzak:** neurri-multzo hau abian jarri beharra dago, euren helburua lortzeko.

**Inplikaturako sailak eta eragileak:** eragile hauek neurriak ezarri eta helburua betetzea lortzen dute.

**Kronograma:** kronograman, neurriak ezartzeko aurreikusitako epealdiak adierazten dira, eta zerikusi zuzena dute urteko plan eragileekin. Ezarpenerako aurreikusitako urteak kolorez nabarmentzen dira .

## **BIGARREN ZATIA: ADIERAZLEAK ETA EGIAZTATZEKO MEKANISMOAK**

Bigarren zatian, Berdintasunerako Plan guztietan ebaluaziorako eta jarraipenerako agertu behar diren sistemak zehazten dira. Mekanismo horien bitartez, planean aurreikusitako ekintzen betearazpen-maila neurtu eta indarrak zein hobekuntza-arloak antzematen dira ezartzeko eta azken ebaluazioa egiteko prozesuan. Egiaztatu daitekeenez, proposatutako helburu bakoitzak ebaluaziorako eta jarraipenerako adierazle bat edo batzuk dauzka, baita egiaztatze mekanismoak ere.

|           |
|-----------|
| Ardatza   |
| Programak |
| Helburuak |
| Ekintzak  |



**Ebaluaziorako adierazleak:**  
mekanismo hauei esker,  
aurreikusitako ekintzen  
betearazpen-maila neurtu eta  
ustezko oztopoak antzematen  
dira.

**Egiaztatzeko mekanismoak:**  
tresna hauei esker, agiri bidez  
egiaztatzen dira ezarpenerako  
prozesuan garatutako urratsak.

| II. ARDATZA. EMAKUMEEN JABEKUNTZA                                                                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1. PROGRAMA. EMAKUMEEN JABEKUNTZA PERTSONAL ET A KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA                                                                                                                                                                                                                            |                                                                                                                                                                                                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
| HELBURUA: 1.1. Emakumeek eta feminismoak Urduñan duten zeresana aitortzeko lanari jarraipena ematea.                                                                                                                                                                                               |                                                                                                                                                                                                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
| EKINTZAK                                                                                                                                                                                                                                                                                           | ADIERAZLEAK                                                                                                                                                                                                                             | Egiaztatzeko mekanismoak                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| 1. Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko eguna, oroitzen jarraitzea. Horretarako, agerian zeko jarduera publikoak garatzea, apurkaria ahalik eta herritar gehien (elkarteak, egiak, tabernak, tokiko eragileak...) eta leko bertako sail zein zerbitzu gehien ikatzeko.                             | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Urtero, martxoaren 8aren oroipena egiteko jarduerak garatzen dira.</li> <li>- Urtero, gehitu egiten da martxoaren 8aren oroipenean inplikaturako udal-sailen eta eragileen kopurua.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Garatutako urteko jardueren erregistroa (mota, herritarren partaidetza-maila, lekua, gogobetetasun-maila...).</li> <li>- Urteko inplikaturako udal-sailen eta eragileen erregistroa (kopurua, jarduera-mota, inplikazio-maila, zuzkitutako berezko aurrekontua...).</li> </ul>             |
| 2. Urduñako emakumei buruzko kusketak eta hitzaldiak egitea, dibertsitatea errealtate desberdinak agerian jartzeko: emakume baserritarrak, ekintzaileak, kirolariak, artistak, dibertsitate funtzionalak... Bertan, bereziki, lan berezia egitea emakume migratuak agerian jartzeko zereginarekin. | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Urtero, proposaturako gaiak buruzko erakusketak eta hitzaldiak garatzen dira.</li> <li>- Urtero, erakusketak eta hitzaldiak garatzen dira, emakume migratuak agerian jartzeko.</li> </ul>      | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumeak protagonista dituzten urteko erakusketen eta hitzaldien %.</li> <li>- Emakume migratuak protagonista dituzten urteko erakusketen eta hitzaldien %.</li> <li>- Honako hauexen erregistroa: gaiak, dibertsitate-motak, noriek egiten duen hitzaldia edo erakusketa...).</li> </ul> |

---

# JARDUKETARAKO PLANA

---

**25. or.**

Urduñako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana (2020-2022)

---

# PLANGINTZA

---

**26. or.**

Urduñako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana (2020-2022)

| GOBERNU ONA                                                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |                                                                    |      |      |      |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------|------|------|------|
| 1. PROGRAMA. KONPROMISO POLITIKOA                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |                                                                    |      |      |      |
| Helburuak                                                                                           | Ekintzak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          | Inplikaturako sailak eta eragileak                                 | 2020 | 2021 | 2022 |
| GO.1. Berdintasunerako III. Plana ezartzeko behar diren berdintasun-organoak sortzea eta indartzea. | GO.1.1. <i>Sailarteko Berdintasun Taldea</i> zehaztea eta onartzea. Horretarako, Berdintasunerako III. Planaren indarraldian bertako kideak izateko izendatutako sail eta zerbitzuetako ordezkarien osaketa zehaztea. Hain zuzen ere, sail eta zerbitzu guztiak eta erantzukizun-maila guztiak ordezkatzeko dituen berdintasun-organoa izango da. | Berdintasun Saila<br>Korporazio Politikoa                          |      |      |      |
|                                                                                                     | GO.1.2. Urtean betearaziko diren urteko plan eragileak onartzea (ekintzen egutegia, inplikaturako sailak eta zerbitzuak, arduradunak eta esleitutako aurrekontua).                                                                                                                                                                                | Korporazio Politikoa                                               |      |      |      |
|                                                                                                     | GO.1.3. Berdintasuneko teknikariaren lanaldiaren orduen gehikuntza onartzea Udalbatzan, bere lanaldia osoa izan dadin.                                                                                                                                                                                                                            | Korporazio Politikoa                                               |      |      |      |
|                                                                                                     | GO.1.4. Berdintasunerako Udal Ordenantzan xedatzen den bezala, Berdintasun Sailak proposatuta, Parekotasun Batzordearen osaketa, eskumenak eta jardunaren araubidea zehaztea Udalbatzan.                                                                                                                                                          | Korporazio Politikoa<br>Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea |      |      |      |
|                                                                                                     | GO.1.5. Urteko plan eragileetan proposatutako ekintzen garapenerako behar diren kostu ekonomikoen araberako aurrekontua zuzkitzea Berdintasun Sailarentzat.                                                                                                                                                                                       | Korporazio Politikoa<br>Ogasuna eta Barne<br>Araubidea             |      |      |      |
|                                                                                                     | GO.1.6. Parekotasun Batzordearentzako aurrekontu-saila onartzea, autokudeaketako organoa izan dadin.                                                                                                                                                                                                                                              | Korporazio Politikoa<br>Ogasuna eta Barne<br>Araubidea             |      |      |      |

| GOBERNU ONA                                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                          |                                             |      |      |      |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------|------|------|------|
| 2. PROGRAMA. BERDINTASUNERAKO PRESTAKUNTZA                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                          |                                             |      |      |      |
| Helburuak                                                                                                     | Ekintzak                                                                                                                                                                                                                                 | Inplikaturako sailak eta eragileak          | 2020 | 2021 | 2022 |
| GO.2. Politikari eta teknikari guztiei Berdintasunerako III. Planari buruzko prestakuntza ematea.             | GO.2.1. Zinegotzigo, sail eta zerbitzu bakoitzarekin prestakuntza-saioak antolatzea eta egitea, udaleko teknikari guztiek Berdintasunerako III. Plana ezagutu dezaten eta bertan duten inplikazio-maila zein den jakin dezaten.          | Sail eta zerbitzu guztiak Berdintasun Saila |      |      |      |
|                                                                                                               | GO.2.2. Urteko plan eragile guztiekin saio berberak egitea.                                                                                                                                                                              | Sail eta zerbitzu guztiak Berdintasun Saila |      |      |      |
| GO.3. Politikari eta teknikari guztiei berdintasuna zeharkako egiteko prozesuari buruzko prestakuntza ematea. | GO.3.1. Sail edo zerbitzu bakoitzak generoaren ikuspegia bere jarduketa-arloetan ezartzeko faktoreei buruz dituen prestakuntza-premiak antzematea.                                                                                       | Sail eta zerbitzu guztiak Berdintasun Saila |      |      |      |
|                                                                                                               | GO.3.2. Generoa zeharkako egiteko prozesuari buruzko urteko ikaskuntza-planak ezartzea udaleko politikari eta teknikarientzat, antzemandako prestakuntza-premiak kontuan hartuta.                                                        | Sail eta zerbitzu guztiak Berdintasun Saila |      |      |      |
|                                                                                                               | GO.3.3. Haien jarduketa-arloarekin lotutako gai zehatzak jorratzen dituzten eta beste erakunde batzuek antolatzen dituzten prestakuntzei, hitzaldiei, jardunaldiei... buruzko informazioa zabaltzea politikarien eta teknikarien artean. | Sail eta zerbitzu guztiak Berdintasun Saila |      |      |      |

**28. or.**

Urduñako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2020-2022)

| GOBERNU ONA                                                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                          |                                                                                     |      |      |      |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------|------|------|------|
| 2. PROGRAMA. BERDINTASUNERAKO PRESTAKUNTZA                                                                           |                                                                                                                                                                                                                                          |                                                                                     |      |      |      |
| Helburuak                                                                                                            | Ekintzak                                                                                                                                                                                                                                 | Inplikaturako sailak eta eragileak                                                  | 2020 | 2021 | 2022 |
| GO.4. Politikari eta teknikari guztiei lengoaiaren eta irudiaren erabilera ez-sexistari buruzko prestakuntza ematea. | GO.4.1. Lengoaiaren eta irudiaren erabilera ez-sexistari buruzko prestakuntza-saioak egitea udaleko politikari eta teknikari guztientzat.                                                                                                | Sail eta zerbitzu guztiak Berdintasun Saila                                         |      |      |      |
|                                                                                                                      | GO.4.2. Sail edo zerbitzu bakoitzean komunikazioak egiteko, edukia webgunera igotzeko... ardura duten teknikariak identifikatzea eta prestatzea, lengoaiaren eta irudiaren erabilera ez-sexistari buruzko prestakuntza bereziak egiteko. | Sail eta zerbitzu guztiak Berdintasun Saila                                         |      |      |      |
| GO.5. <i>Sailarteko Berdintasun Taldeko</i> kideei prestakuntza ematea.                                              | GO.5.1. Prestakuntza berezia egitea, Urduñako Berdintasunerako III. Planaren ezarpenerako, jarraipenerako eta ebaluaziorako prozesuak eta tresnak ezagutzeko.                                                                            | Sail eta zerbitzu guztiak Berdintasun Saila<br><i>Sailarteko Berdintasun Taldea</i> |      |      |      |
|                                                                                                                      | GO.5.2. <i>Sailarteko Berdintasun Taldeari</i> generoa zeharkako egiteko prozesuari buruzko gai zehatzetako hitzaldiei, jardunaldiei... buruzko informazioa ematea.                                                                      | Berdintasun Saila                                                                   |      |      |      |
| GO.6. Parekotasun Batzordeko kideei prestakuntza ematea.                                                             | GO.6.1. Parekotasun Batzordeko kideen prestakuntza-premiak antzematea.                                                                                                                                                                   | Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea                                          |      |      |      |
|                                                                                                                      | GO.6.2. Parekotasun Batzordeko kideei organo aholku-emaile moduan eta herritarren zein udalaren arteko lotune moduan dituzten eginkizunen garapen onarekin lotutako faktoreei buruzko prestakuntza ematea.                               | Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea                                          |      |      |      |
|                                                                                                                      | GO.6.3. Parekotasun Batzordeari bere jarduketa-arloarekin lotutako gai zehatzak jorratzen dituzten eta beste erakunde batzuek antolatzen dituzten hitzaldiei, jardunaldiei... buruzko informazioa ematea.                                | Berdintasun Saila                                                                   |      |      |      |

**29. or.**

Urduñako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2020-2022)

| GOBERNU ONA                                                                       |                                                                                                                                                                                         |                                                  |      |      |      |
|-----------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------|------|------|------|
| 3. PROGRAMA. GENEROAREN IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN                                |                                                                                                                                                                                         |                                                  |      |      |      |
| Helburuak                                                                         | Ekintzak                                                                                                                                                                                | Inplikaturako sailak eta eragileak               | 2020 | 2021 | 2022 |
| GO.7. Udaleko aurrekontuetan generoaren ikuspegia kontuan hartzea.                | GO.7.1. Aurrekontuak zehazten eta kudeatzen dituztenek behar besteko tresnak dituztela bermatzea, generoaren ikuspegia udaleko aurrekontuetan eta zerga-ordenantzetan kontuan hartzeko. | Berdintasun Saila<br>Ogasuna eta Barne Araubidea |      |      |      |
|                                                                                   | GO.7.2. Urtero, sail eta zerbitzu bakoitzean aurrekontu-saila zuzkitzea, jarduketa-arloetan berdintasuna kontuan hartzen duten neurriak garatzeko.                                      | Berdintasun Saila<br>Ogasuna eta Barne Araubidea |      |      |      |
|                                                                                   | GO.7.3. Diseinatutako jarduera-planaren arabera, Parekotasun Batzordearentzako kontu-saila zuzkitzea.                                                                                   | Berdintasun Saila<br>Ogasuna eta Barne Araubidea |      |      |      |
|                                                                                   | GO.7.4. Finantzaketa-iturriak identifikatzea, zeharkako berdintasun-neurriak ezarri ahal izateko.                                                                                       | Berdintasun Saila                                |      |      |      |
| GO.8. Datuak biltzeko eta ustiatzeko orduan generoaren ikuspegia kontuan hartzea. | GO.8.1. Sexuaren aldagaia modu sistematikoan sartzeko udaleko datuak biltzeko prozeduretan, baita estatistiketan eta inkestetan ere, halakorik ez dutela antzematen denean.             | Sail guztiak                                     |      |      |      |
|                                                                                   | GO.8.2. Urteko memoriak, txostenak, ikasketak... egiten dituzten langileek behar besteko tresnak dituztela bermatzea, generoaren ikuspegia datuen ustiapenean sartzeko.                 | Berdintasun Saila                                |      |      |      |
|                                                                                   | GO.8.3. Eskuragarri dauden datuak ustiatzean, emakumeek eta gizonen jarduketa-arloetan dituzten egoerak, baldintzak, asmoak eta premiak ezagunak direla ziurtatzea.                     | Berdintasun Saila<br>Sail guztiak                |      |      |      |

| GOBERNU ONA                                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                     |      |      |      |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------|------|------|------|
| 3. PROGRAMA. GENEROAREN IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN                                                             |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                     |      |      |      |
| Helburuak                                                                                                      | Ekintzak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              | Inplikatutako sailak eta eragileak                  | 2020 | 2021 | 2022 |
| GO.9. Kontratueta, hitzarmeneta eta diru-laguntzetan berdintasunaren ikuspegia kontuan hartzen dela bermatzea. | GO.9.1. Kontratuei, hitzarmenei eta diru-laguntzei buruzko orri guztiak berrikustea eta bertan berdintasuna bermatzen duten klausulak txertatzea.                                                                                                                                                                                     | Berdintasun Saila<br>Kontratazio Saila              |      |      |      |
|                                                                                                                | GO.9.2. Kontratuen, hitzarmenen eta diru-laguntzen orrietako klausuletan zehaztutako baldintzak benetan eta eraginkortasunez betetzen direla berrikustea.                                                                                                                                                                             | Berdintasun Saila<br>Jarraipena egiten duten sailak |      |      |      |
|                                                                                                                | GO.9.3. Kontratazio edo hitzarmenen baten orria argitaratu nahi duten sail guztiei aholkularitza ematea, berdintasunaren sustapenerako neurriak txertatzeko eta behar diren tresnak eskaintzeko.                                                                                                                                      | Berdintasun Saila                                   |      |      |      |
| GO.10. Berdintasun Saila indartzea.                                                                            | GO.10.1. Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako gaietan Berdintasun Saila teknikari eta politikarientzako erreferentziako organo aholku-emailea dela bermatzea.                                                                                                                                                             | Berdintasun Saila<br>Korporazio Politikoa           |      |      |      |
|                                                                                                                | GO.10.2. Berdintasun Saileko kudeaketa-sistema diseinatzea, honako haxe kontuan hartuta: Berdintasunerako III. Planaren eta sailean garatzen diren jardueren plangintzarako, ezarpenerako, jarraipenerako eta ebaluaziorako mekanismoak eta tresnak.                                                                                  | Berdintasun Saila                                   |      |      |      |
|                                                                                                                | GO.10.3. Komunikazio-bideak zuzenean eta bitartekaritzarik gabe indartzea (betiere, udal-protokoloen arabera beharrezkoa ez bada) sail, zerbitzu eta tokiko eragile guztiekin. Horretarako, aldian aldiko informazioak bidaltzea honako hauexei buruz: Berdintasunerako III. Planeko neurriak, kanpainak, tailerrak, prestakuntzak... | Berdintasun Saila<br>Korporazio Politikoa           |      |      |      |
| GO.11. <i>Sailarteko Berdintasun Taldea</i> bultzatzea eta indartzea.                                          | GO.11.1. Sailarteko Berdintasun Taldearen eginkizunak, zereginak eta eskumenak zehaztea, Berdintasun Sailak horri dagokionez dituen eginkizunen arabera (dinamizazioa, sustapena, koordinazioa, komunikazioa...).                                                                                                                     | Berdintasun Saila<br>Sailarteko Berdintasun Taldea  |      |      |      |
|                                                                                                                | GO.11.2. Teknikari guztiei Sailarteko Berdintasun Taldearen osaketaren, eginkizunen, zereginen, eskumenen eta lan-planaren berri ematea.                                                                                                                                                                                              | Berdintasun Saila<br>Korporazio Politikoa           |      |      |      |
|                                                                                                                | GO.11.3. Sailarteko Berdintasun Taldeak behar besteko tresnak dituela bermatzea, bere zeregina egitura horretan bertan garatzeko.                                                                                                                                                                                                     | Berdintasun Saila                                   |      |      |      |

**31. or.**

Urduñako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2020-2022)

| GOBERNU ONA                                                                                     |                                                                                                                                                                                         |                                                                               |      |      |      |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------|------|------|------|
| 4. PROGRAMA. KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA                                                        |                                                                                                                                                                                         |                                                                               |      |      |      |
| Helburuak                                                                                       | Ekintzak                                                                                                                                                                                | Inplikaturako sailak eta eragileak                                            | 2020 | 2021 | 2022 |
| GO.12. Plan eragileak koordinaziorako eta ezarpenerako tresna moduan ezartzen direla bermatzea. | GO.12.1. Urteko plan eragileak egitea (egutegia, inplikaturako sailak eta zerbitzuak, arduradunak, ekintza bakoitzari esleitutako aurrekontua...).                                      | Berdintasun Saila<br>Sailarteko<br>Berdintasun Taldea                         |      |      |      |
|                                                                                                 | GO.12.2. Urteko plan eragileak eta urteko memoriak Udalbatzan aurkeztea eta onartzea.                                                                                                   | Berdintasun Saila<br>Sailarteko<br>Berdintasun Taldea<br>Korporazio Politikoa |      |      |      |
|                                                                                                 | GO.12.3. Urtero, onartutakoan, plan eragileetan aurreikusitako ekintzen berri ematea zinegotzigo, sail eta zerbitzu guztiei, bertan nolako inplikazioa duten jakin dezaten.             | Berdintasun Saila<br>Sailarteko<br>Berdintasun Taldea                         |      |      |      |
| GO.13. Barruko koordinazio eta komunikaziorako estrategiak eraginkorrak direla bermatzea.       | GO.13.1. Barruko koordinaziorako tresnak, bideak eta estrategiak ebaluatzea.                                                                                                            | Berdintasun Saila<br>Sail guztiak                                             |      |      |      |
| GO.14. Berdintasunerako sare eta programa estrategikoetako partaidetza sustatzea.               | GO.14.1. Beste erakunde publiko batzuek berdintasunerako garatutako sare eta programa estrategiko berriak identifikatzea.                                                               | Berdintasun Saila                                                             |      |      |      |
|                                                                                                 | GO.14.2. Behar besteko neurriak hartzea, beste erakunde publiko batzuek berdintasunerako garatutako sare eta programa estrategikoetan parte hartzeko behar diren eskakizunak betetzeko. | Berdintasun Saila                                                             |      |      |      |
|                                                                                                 | GO.14.3. Udalaz gaundiko sare eta programa estrategikoetan parte hartzen jarraitzea.                                                                                                    | Berdintasun Saila<br>Parekotasun<br>Batzordea                                 |      |      |      |

| GOBERNU ONA                                                                                                            |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |                                                                     |      |      |      |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------|------|------|------|
| 5. PROGRAMA. PARTAIDETZA ETA ERAGINA                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |                                                                     |      |      |      |
| Helburuak                                                                                                              | Ekintzak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   | Inplikaturako sailak eta eragileak                                  | 2020 | 2021 | 2022 |
| GO.15. Parekotasun Batzordea indartzea organo aholku-emaile moduan eta herritarren zein udalaren arteko lotune moduan. | GO.15.1. Parekotasun Batzordeari jarraipena ematea eta, Parekotasun Batzordearen zein Berdintasun Sailaren artean, jardunbiderako estrategia berriak, osaketa, eskumenak eta helburuak proposatzea, Udalbatzari horren guztiorren berri emateko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Ordenantzan adierazten den bezala. | Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea<br>Korporazio Politikoa  |      |      |      |
|                                                                                                                        | GO.15.2. Parekotasun Batzordeak estrategiak abian jartzea, bere osaketan dibertsitatea bultzatu ahal izateko. Horrela, udal-dibertsitatearen ahalik eta adierazgarriena den organoa izango da (zenbait taldetako, adinetako, jatorritako... emakumeak eta gizonak).                                                        | Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea                          |      |      |      |
|                                                                                                                        | GO.15.3. Parekotasun Batzordearen zeregina udaleko politikari eta teknikarien aurrean, agerian jartzea, organo aholku-emaile moduan eta herritarren zein udalaren arteko lotune moduan garatzen duen zeregina jakitera emateko.                                                                                            | Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea<br>Korporazio Politikoa  |      |      |      |
|                                                                                                                        | GO.15.4. Parekotasun Batzordea herritarren aurrean agerian jartzeko lan berezia garatzea, Parekotasun Batzordea herritarren eta udalaren arteko bitartekaria dela jakin dezaten (eginkizunak, osaketa, jarduerak...).                                                                                                      | Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea<br>Komunikazioko enpresa |      |      |      |
|                                                                                                                        | GO.15.5. Tartekari Sarearen zeregina herritarren aurrean agerian jartzea, indarkeriari aurre egiten dioten emakumeak antzemateko, laguntzeko eta aholkatzeko erreferentzia da-eta.                                                                                                                                         | Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea<br>Komunikazioko enpresa |      |      |      |

**33. or.**

Urduñako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2020-2022)

| GOBERNU ONA                                                                        |                                                                                                                                                                                                                                                                             |                                                                     |      |      |      |
|------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------|------|------|------|
| 5. PROGRAMA. PARTAIDETZA ETA ERAGINA                                               |                                                                                                                                                                                                                                                                             |                                                                     |      |      |      |
| Helburuak                                                                          | Ekintzak                                                                                                                                                                                                                                                                    | Inplikaturako sailak eta eragileak                                  | 2020 | 2021 | 2022 |
| GO.16. Berdintasun Saila indartzea, herritarrentzako kontsulta-organoa izan dadin. | GO.16.1. Zabalkunderako bideak ezartzea, Berdintasun Sailaren eginkizunak agerian jartzeko eta herritarrei garatzen dituen jardueren berri emateko (Berdintasunerako III. Planaren zabalkundea, hitzaldiak, jardunaldiak, martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko jarduerak...). | Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea<br>Komunikazioko enpresa |      |      |      |
|                                                                                    | GO.16.2. Berdintasun Sailak herritarrekin dituen zabalkunde-bideen ebaluazioa eta jarraipena egitea, haien eraginkortasuna neurtzeko.                                                                                                                                       | Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea<br>Komunikazioko enpresa |      |      |      |
|                                                                                    | GO.16.3. Berdintasun Sailari herritarren iradokizunen, kexen, iritzien... berri emateko komunikazio-bideak zehaztea (bloga, iradokizunen postontzia, webgunea...).                                                                                                          | Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea<br>Komunikazioko enpresa |      |      |      |
|                                                                                    | GO.16.4. Udalak herritarren partaidetzarako dituen bideak erabiltzea berdintasunerako zerbitzuak txertatzeko.                                                                                                                                                               | Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea<br>Komunikazioko enpresa |      |      |      |

## II. ARDATZA. EMAKUMEEN JABEKUNTZA

### 1. PROGRAMA. EMAKUMEEN JABEKUNTZA PERTSONAL ETA KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA

| Helburuak                                                                                  | Ekintzak                                                                                                                                                                                                                                                                                                     | Inplikaturako sailak eta eragileak                                                         | 2020 | 2021 | 2022 |
|--------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------|------|------|------|
| 1.1. Emakumeek eta feminismoak Urduñan duten zeresana aitortzeko lanari jarraipena ematea. | 1.1.1. <i>Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna</i> , oroitzen jarraitzea. Horretarako, agerian jartzeko jardura publikoak garatzea, apurka-apurka ahalik eta herritar gehien (elkarteak, saltegiak, tabernak, tokiko eragileak...) eta udaleko bertako sail zein zerbitzu gehien inplikatzeko.         | Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea<br>Sail guztiak<br>Kultura, Kirola eta Gazteria |      |      |      |
|                                                                                            | 1.1.2. Urduñako emakumei buruzko erakusketak eta hitzaldiak egitea, dibertsitatea eta errealitate desberdinak agerian jartzeko: emakume baserritarrak, ekintzaileak, kirolariak, artistak, dibertsitate funtzionaldunak... Bertan, gainera, lan berezia egitea emakume migratuak agerian jartzeko zereginen. | Berdintasun Saila<br>Sustapen Ekonomikoa<br>OGZ<br>Kultura, Kirola eta Gazteria            |      |      |      |
|                                                                                            | 1.1.3. Emakumeek historian duten zeregina agerian jartzea eta, horretarako, generoaren ikuspegia kontuan hartzea udalak oroimen historikoari buruz garatzen dituen jardueretan.                                                                                                                              | Oroimen Historikoa<br>Berdintasun Saila<br>Kultura, Kirola eta Gazteria                    |      |      |      |
|                                                                                            | 1.1.4. Emakumeek udalerriko jaietan duten aitortza-maila handitzea.                                                                                                                                                                                                                                          | Kultura, Kirola eta Gazteria<br>Berdintasun Saila                                          |      |      |      |
|                                                                                            | 1.1.5. Emakumeek udalak antolatutako adierazpide kulturaletan daukaten agerpena sustatzea (musikaldiak, azokak, erakusketak, herri-kirolak...).                                                                                                                                                              | Kultura, Kirola eta Gazteria<br>Berdintasun Saila                                          |      |      |      |

| II. ARDATZA. EMAKUMEEN JABEKUNTZA                                                              |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |                                            |      |      |      |
|------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------|------|------|------|
| 1. PROGRAMA. EMAKUMEEN JABEKUNTZA PERTSONAL ETA KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |                                            |      |      |      |
| Helburuak                                                                                      | Ekintzak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    | Inplikaturako sailak eta eragileak         | 2020 | 2021 | 2022 |
| 1.2. Udalerriko emakumeen interesetara egokitutako ikuspegi feministadun jarduerak eskaintzea. | 1.2.1. Urduñako emakumeek Laia Eskolan duten partaidetza-maila zein den jakitea eta haiekin komunikazio-bideak irekitzea, honako haxe antzemateko: zer tailerretan dagoen partaidetza gehien, gaiak, adinak, kide dituzten taldeak, tailerraren kokapenaren eta parte-hartzaileen jatorriaren arteko lotura...                                                              | Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea |      |      |      |
|                                                                                                | 1.2.2. Urduñako emakumeen zenbait talderen ustez interesgarrienak izan diren jarduerak ezagutzea eta eskaintzea (hitzaldiak, jardunaldiak, tailerrak, zine-foruma...) eta eskaintza interes horietara egokitu ahal izatea (gazteak, adinekoak, kirolariak, gizarte-bazterketarako arriskuan daudenak, ekintzaileak, baserritarrak, migratuak, elkarte-sareko emakumeak...). | Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea |      |      |      |
|                                                                                                | 1.2.3. Udaleko beste sail eta zerbitzu batzuek edo beste erakunde publiko batzuek antolatutako jarduerak zabaltzea, interesgarriak izan daitezkeelako generoaren inguruko kontzientzia sortzeko eta norberaren autonomia garatzeko (Zainduz, enplegarritasuna eta tokiko garapena sustatzeko jarduerak, Mugi Zaitetz!...).                                                  | Berdintasun Saila<br><i>Sail guztiak</i>   |      |      |      |
|                                                                                                | 1.2.4. Emakume migratuen ustez interesgarrienak izan daitezkeen jarduerari buruzko azterketa berezia egitea, emakumeen arteko laguntza-sareak sortzeko eta orain arte antzemandako oztopoak gainditzeko.                                                                                                                                                                    | Berdintasun Saila<br>HHE<br>OGZ            |      |      |      |

**36. or.**

Urdunako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2020-2022)

## II. ARDATZA. EMAKUMEEN JABEKUNTZA

### 1. PROGRAMA. EMAKUMEEN JABEKUNTZA PERTSONAL ETA KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA

| Helburuak                                                          | Ekintzak                                                                                                                                                                                       | Inplikaturako sailak eta eragileak                                                              | 2020 | 2021 | 2022 |
|--------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------|------|------|------|
| 1.3. Adin guztietako emakumeen autozainketa eta osasuna sustatzea. | 1.3.1. Osasun integralaren arloan, emakumeentzako tailerrak antolatzea (ikuspegi biopsikosoziala).                                                                                             | Berdintasun Saila<br>Osasun Zentroa<br>Parekotasun Batzordea                                    |      |      |      |
|                                                                    | 1.3.2. Behar besteko kanpainak garatzea, sexualitatearen bizipen ona sustatzeko.                                                                                                               | Berdintasun Saila<br>OGZ<br>Kultura, Kirola eta Gazteria                                        |      |      |      |
|                                                                    | 1.3.3. Ume eta gazteentzako hezkuntza-programa afektibo-sexuala garatzea, ikastetxeetan edota udal-eskumenekoak diren hezkuntza-eremu ez-formaletan ikasleekin lantzeko.                       | Berdintasun Saila<br>Kultura, Kirola eta Gazteria<br>GE<br>Ikastetxeak<br>OGZ<br>Osasun Zentroa |      |      |      |
|                                                                    | 1.3.4. <i>Etxez etxe</i> programaren bidez, emakumeek Berdintasun Sailak osasun integralaren arloan garatutako jardueretan duten partaidetza sustatzea eta laguntza-sareen sorrera bultzatzea. | OGZ                                                                                             |      |      |      |

37. or.

Urduñako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2020-2022)

| II. ARDATZA. EMAKUMEEN JABEKUNTZA                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |                                                                            |      |      |      |
|--------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------|------|------|------|
| 2. PROGRAMA. EMAKUMEEN JABEKUNTZA SOZIAL ETA POLITIKORAKO LAGUNTZA |                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |                                                                            |      |      |      |
| Helburua                                                           | Ekintzak                                                                                                                                                                                                                                                                                           | Inplikaturako sailak eta eragileak                                         | 2020 | 2021 | 2022 |
| 2.1. Udalerriko elkarteetan berdintasuna bultzatzea.               | 2.1.1. Sailak garatzen dituen jarduerak Udalerriko elkarte guztien artean zabaltzea.                                                                                                                                                                                                               | Berdintasun Saila                                                          |      |      |      |
|                                                                    | 2.1.2. Elkarte-sarearen laguntza sustatzea martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko kanpainen diseinuan eta partaidetzan.                                                                                                                                                                                | Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea<br>Kultura, Kirola eta Gazteria |      |      |      |
|                                                                    | 2.1.3. Urduñako elkartearen informaziorako, sentsibilizaziorako, prestakuntzarako eta aholkularitzarako ekintzak abian jartzea honako honexekin lotutako gaietan: emakumeen zein gizonen berdintasuna eta generoaren ikuspegia barruko kudeaketan eta garatutako jardueretan txertatzeko prozesua. | Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea                                 |      |      |      |
|                                                                    | 2.1.4. Berdintasunaren aldeko jarduerak garatzen dituzten elkarteak herritarren aurrean aitortzeko ekintzak abian jartzea.                                                                                                                                                                         | Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea<br>Kultura, Kirola eta Gazteria |      |      |      |

38. or.

Urduñako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2020-2022)

## II. ARDATZA. EMAKUMEEN JABEKUNTZA

### 2. PROGRAMA. EMAKUMEEN JABEKUNTZA SOZIAL ETA POLITIKORAKO LAGUNTZA

| Helburua                                                                                                             | Ekintzak                                                                                                                                                                                                                                                  | Inplikaturako sailak eta eragileak                                                       | 2020 | 2021 | 2022 |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------|------|------|------|
| 2.2. Emakumeek elkarte-sarean duten partaidetza bultzatzea eta, bertan, emakume migratuei lehentasun berezia ematea. | 2.2.1. Urduñako emakumeen elkarteekin lotutako informaziorako ekintzak garatzea, zenbait giza taldetako emakumeek elkarte horiek daudela jakin dezaten (adineko emakumeak, gazteak, migratuak, gizarte-bazterketarako arriskuan daudenak...).             | Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea<br>OGZ<br>Kultura, Kirola eta Gazteria<br>HHE |      |      |      |
|                                                                                                                      | 2.2.2. Urduñako emakumeen elkarteak herritarren aurrean aitortzeko eta agerian jartzeko ekintzak garatzea.                                                                                                                                                | Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea<br>Kultura, Kirola eta Gazteria               |      |      |      |
|                                                                                                                      | 2.2.3. Emakume migratuek Urduñako elkarte-sarean duten partaidetza aztertzea, haien partaidetza sustatzen duten neurriak ezartzeko eta partaidetza eragotzi dezaketen oztopoak antzemateko.                                                               | Parekotasun Batzordea<br>Berdintasun Saila<br>HHE<br>OGZ                                 |      |      |      |
|                                                                                                                      | 2.2.4. Elkarte-sarean bete-betean parte hartzen duten emakume migratuak antzematea, haiekin komunikazio-bideak ezartzeko. Horrela, zubi moduan erabili ahal izango dira, Berdintasun Sailaren eta emakume migratuen arteko komunikazio-bideak irekitzeko. | Parekotasun Batzordea<br>HHE<br>Kultura, Kirola eta Gazteria                             |      |      |      |
|                                                                                                                      | 2.2.5. Beste udalerri batzuetan emakumeen elkartegintza sustatzea helburu izan duten ekimen arrakastatsuak identifikatzea, Urduñan berregiteko.                                                                                                           | Berdintasun Saila<br>Parekotasun Batzordea                                               |      |      |      |

39. or.

Urduñako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2020-2022)

|  |  |                              |  |  |  |
|--|--|------------------------------|--|--|--|
|  |  | Kultura, Kirola eta Gazteria |  |  |  |
|--|--|------------------------------|--|--|--|

**40. or.**

Urduñako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana (2020-2022)

| II. ARDATZA. EMAKUMEEN JABEKUNTZA                                    |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |                                                                            |      |      |      |
|----------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------|------|------|------|
| 2. PROGRAMA. EMAKUMEEN JABEKUNTZA SOZIAL ETA POLITIKORAKO LAGUNTZA   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |                                                                            |      |      |      |
| Helburua                                                             | Ekintzak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        | Inplikaturako sailak eta eragileak                                         | 2020 | 2021 | 2022 |
| 2.3. Emakumeek kirol-jardunean duten partaidetza soziala bultzatzea. | 2.3.1. Emakumeek kirol-jardunean duten agerikotasuna bultzatzea, baina, batez ere, ohituraren arabera gizonak egin dituzten kirolekin (Zikloa aldizkaria, SSSS, erakustaldiak, omenaldiak, erakusketak...).                                                                                                                                     | Komunikazioko enpresa<br>Berdintasun Saila<br>Kultura, Kirola eta Gazteria |      |      |      |
|                                                                      | 2.3.2. Euren kirol-eremuetan nabarmendu diren Urduñako emakume kirolarien agerikotasuna bultzatzea.                                                                                                                                                                                                                                             | Berdintasun Saila<br>Kultura, Kirola eta Gazteria                          |      |      |      |
|                                                                      | 2.3.3. GE-en, kirol-elkarteen eta hezkuntza-eragile ez-formalen laguntzaz, ume eta gazteentzako kirol-jarduerak sustatzea, generoaren arloko zeregin eta estereotipo tradizionalak hausteko eta neska nerabeei kirola ez uzten laguntzeko, “Urduñako emakumeek kirola egiteko duten aukerari buruzko diagnostikoko” gomendioak kontuan hartuta. | Berdintasun Saila<br>GE<br>Kultura, Kirola eta Gazteria                    |      |      |      |

41. or.

Urduñako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2020-2022)

| III. ARDATZA. EKONOMIEN ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZAREN ERALDAKETA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO                                          |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |                                          |      |      |      |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------|------|------|------|
| 3. PROGRAMA. BERDINTASUNA GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BEHAR DEN BALIO MODUAN AITORTZEA                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |                                          |      |      |      |
| Helburuak                                                                                                                      | Ekintzak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   | Inplikaturako sailak eta eragileak       | 2020 | 2021 | 2022 |
| 3.1. Emakume baserritarren errealitatea ezagutzea.                                                                             | 3.1.1. Urduñako emakume baserritarrek honako hauexekin lotutako gaietan dituzten premiak antzematea, identifikatutako komunikazio-bideen bitartez eta Ekoizpenen koordinazioaz: mugikortasuna, osasuna, bateragarritasuna, baliabideen eskurapena, laguntza-sareak, eten digitala..., lehentasunezko gaiak zehazteko eta udalak eskaintzen dituen baliabideak haien premietara egokitzeko. | Berdintasun Saila<br>Sustapen Ekonomikoa |      |      |      |
|                                                                                                                                | 3.1.2. Lurraren kontrola eta jabetza dituzten emakume baserritarrak <i>elikaduraren burujabetza</i> n funtsezkoak diren eragile moduan jendaurrean agerian jartzea eta aitortzea eta, horretarako, abian dauden ekimenei jarraipena ematea; esate baterako, Ekoizpenekin sustatutakoak eta <i>urriaren 15a, Landa Inguruneko Emakumeen Eguna</i> , oroitzea.                               | Berdintasun Saila<br>Sustapen Ekonomikoa |      |      |      |
| 3.2. Udalerrian kokatutako enpresei eta udalak berak zuzenean kudeatutako enpresei berdintasunezko kultura garatzen laguntzea. | 3.2.1. Diagnostikoen eta berdintasunerako planen bidez, berdintasunezko kultura sustatzea udalak kudeatutako enpresetan.                                                                                                                                                                                                                                                                   | Berdintasun Saila<br>Sustapen Ekonomikoa |      |      |      |
|                                                                                                                                | 3.2.2. Udalerrian kokatutako enpresek berdintasunaren arloan dituzten eskaerak eta premiak zehaztea, haiei erantzuteko moduko baliabideak eta tresnak eskaini ahal izateko.                                                                                                                                                                                                                | Berdintasun Saila<br>Sustapen Ekonomikoa |      |      |      |
|                                                                                                                                | 3.2.3. Udalerriko Merkatarien Elkartarekin, <i>Enpresen Gizarte Erantzukizunerako</i> ekintzak antolatzea, berdintasunarekin duten konpromisoa erakutsi dezaten, baina, batez ere, M8ko eta A25eko kanpainen, jaien, ospakizunen... testuinguruan.                                                                                                                                         | Berdintasun Saila<br>Sustapen Ekonomikoa |      |      |      |

| III. ARDATZA. EKONOMIEN ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZAREN ERALDAKETA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO                                                                    |                                                                                                                                                                                         |                                                                            |      |      |      |
| 7.2.2. Udal korporazioari eta udaleko langile guztiei <i>Lanaren arloko eraso sexualaren eta sexuagatiko erasoaren aurkako protokoloaren</i> berri ematea.                                                              | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Langile guztien artean zabaltzeko estrategia dago eginda.</li> <li>- Udal-korporazioko kide guztiek <i>Lanaren arloko eraso sexualaren eta sexuagatiko erasoaren aurkako protokoloa</i> ezagutzen dute.</li> <li>- Udaleko 3 langile-taldeetako pertsona guztiek, erakunde autonomoek eta udalaren menpeko edo udalarekin lotutako entitate publikoek <i>Lanaren arloko eraso sexualaren eta sexuagatiko erasoaren aurkako protokoloa</i> ezagutzen dute.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zabalkunderako estrategia.</li> <li>- Protokoloaren komunikaziorako eta zabalkunderako ekintzen kopurua eta mota.</li> <li>- Protokoloaren zabalkunderako ekintzetan parte hartzen duten langileen kopurua, profila eta %.</li> </ul> |

| IV. ARDATZA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK                                                                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 7. PROGRAMA. KALTEA ANTZEMATEA, ARTATZEA ETA KONPONTZEA                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| HELBURUA: 7.2. Lanaren arloko eraso sexualeko eta sexuagatiko erasoko kasuetan prebentziorako eta jarduketarako mekanismoak ezartzea.                                                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| EKINTZAK                                                                                                                                                                                                                      | ADIERAZLEAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         | Egiaztatzeko mekanismoak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| 7.2.3. Lanaren arloko eraso sexualaren eta sexuagatiko erasoaren aurkako protokoloaren jarraipenerako zein ebaluaziorako mekanismoa ezartzea (lanerako taldea, tresnak eta baliabideak) eta urtero emaitzak barruan zabaltze. | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanaren arloko eraso sexualaren eta sexuagatiko erasoaren aurkako protokoloak bere jarraipenerako eta ebaluaziorako estrategia dauka (lanerako taldea, tresnak eta baliabideak).</li> <li>- Urtero, barruan zabaltzen dira Lanaren arloko eraso sexualaren eta sexuagatiko erasoaren aurkako protokoloaren ezarpeneko emaitzak.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarraipena eta ebaluazioa egiteko estrategia.</li> <li>- Honako hauxe kontuan hartzen duen urteko memoria-txostena dago:</li> <li>- Udalean gertatutako eraso sexualeko eta sexuagatiko erasoko egoeren kopurua.</li> <li>- Arretarako egindako ekintzen kopurua eta mota.</li> <li>- Emaizten urteko memoria-txostenaren zabalkunderako ekintzen kopurua eta mota.</li> <li>- Zabalkunderako ekintzetan parte hartzen duten langileen kopurua, profila eta %.</li> </ul> |

| IV. ARDATZA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK                                                                                                                              |                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 8. PROGRAMA. ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA                                                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| HELBURUA: 8.1. Udalerrian emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiten dioten instituzioen arteko jarduketa koordinatua sustatzea.                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| EKINTZAK                                                                                                                                                                                  | ADIERAZLEAK                                                                                                                                                                                                                                                                               | Egiaztatzeko mekanismoak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| 8.1.1. Urduñako emakumeen aurkako indarkeriako kasuetako Jarduketarako Erakundearteko I. Protokoloa egitea, sinatzea eta onartzea.                                                        | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Partaidetza tekniko, politiko eta herritarrerako bideak irekitzen dira.</li> <li>- Urduñako emakumeen aurkako indarkeriako kasuetako Jarduketarako Erakundearteko I. Protokoloa egin, sinatu eta onartu egiten da.</li> </ul>                    | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Tokiko protokoloa dago onartuta eta sinatuta.</li> <li>- Partaidetzarako bideak.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
| 8.1.2. Emakumeen aurkako indarkeriako kasuetako Jarduketarako Erakundearteko I. Protokoloa udaleko politikarien nahiz teknikarien eta Urduñako elkarte zein herritarren artean zabaltzea. | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zabalkunderako estrategia egiten da.</li> <li>- Emakumeen aurkako indarkeriako kasuetako Jarduketarako Erakundearteko I. Protokoloa udaleko politikarien nahiz teknikarien eta Urduñako elkarte zein herritarren artean zabaltzen da.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zabalkunderako estrategia.</li> <li>- Protokolo berriaren zabalkunderako ezarritako neurrien kopurua eta mota.</li> <li>- Zabalkunderako ekintzetan parte hartu dutenen kopurua, sexua eta adina.</li> <li>- Zabalkunderako ekintzetan parte hartzen duten teknikarien, politikarien, elkarten eta herritarren %.</li> <li>- Parte-hartzaileek zabalkunderako ekintzei buruz egindako balioespena.</li> </ul> |

| IV. ARDATZA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK                                                                      |                                                                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                      |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 8. PROGRAMA. ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA                                                                                          |                                                                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                      |
| HELBURUA: 8.1. Udalerrian emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiten dioten instituzioen arteko jarduketa koordinatua sustatzea. |                                                                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                      |
| EKINTZAK                                                                                                                          | ADIERAZLEAK                                                                                                              | Egiaztatzeko mekanismoak                                                                                                                                                                                                                             |
| 8.1.3. Tartekari Sareko udal-eragilearekin koordinatzeko eta komunikatzeko ekintzak sistematizatzea.                              | - Lanerako egutegia eta plana ezartzen dira, Urduñan Tartekari Sareko eragile(ar)ekin koordinatzeko.                     | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Diseinatutako lan-plana.</li> <li>- Koordinaziorako saioetan parte hartzen duten erakundeak eta eragileak (Parekotasun B., OGZ, Berdintasun Saila).</li> <li>- Koordinaziorako bileretako aktak.</li> </ul> |
| 8.1.4. EUDELeko “BERDINSAREA” Berdintasunaren aldeko eta Indarkeriaren aurkako Euskal Udalen Sarean parte hartzen jarraitzea.     | - Urduñak EUDELeko “BERDINSAREA” Berdintasunaren aldeko eta Indarkeriaren aurkako Euskal Udalen Sarean parte hartzen du. | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jasotako/partaidetzapeko deialdien kopurua eta mota.</li> <li>- Partaidetzapeko saioetako aktak.</li> <li>- Hartutako konpromisoak.</li> <li>- Sareko partaidetzaren inguruko gogobetetasuna.</li> </ul>    |

---

# KUDEATZEKO SISTEMA

---

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 10. artikuluan xedatzen den bezala<sup>1</sup>, tokiko administrazioek behar besteko egiturak eduki behar dituzte, euren eskumenen esparruan berdintasunaren printzipioa bultzatzeko.

Izan ere, udaleko II. Planean azaldutako orientazioaren arabera, zenbait egitura sortu edota indartu behar dira, bertan proposatutako helburuak lortzeko eta antolatutako ekintzak garatzeko. Aldi berean, jarraipenerako eta ebaluaziorako prozesuaz ere arduratuko lirateke egitura horiek.

II. Plana ebaluatzean, egiaztatu egin zen egitura horiek ez zirela sortu eta hori oztopo nagusietakoa zela udalean bertan berdintasunaren printzipioa zeharkako egin ahal izateko. Hori dela eta, argi eta garbi zegoen egitura horien eraketari eta bultzadari heldu behar zitzaizela berriro. Hain zuzen ere, III. Planeko gobernu onaren esparruan, hainbat ekintzak dute helburu hori.

Hartara, III. Plana behar bezala ezarri ahal izateko, honako kudeaketa-egitura hauek abian jarri eta indartu behar dira.

### TALDE SUSTATZAILEA

#### Osaketa

- Alkatetza
- Berdintasun Zinegotzigoa
- Berdintasuneko teknikaria

Berdintasuneko teknikaria koordinatzailea izango da.

---

<sup>1</sup> Erreferentziako Esparrua ikusi.

## **Eginkizunak**

Orain arte udalean ez zegoen taldea denez, ibilbidea egiten duen neurrian zehaztuko dira bere eginkizunak. Edonola ere, oro har, bere zereginak honako honexekin egon beharko dira lotuta: III. Planaren sustapena, programazioa, aholkularitza, koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa.

- Berdintasunaren arloko ekintza-planen programazioa zein plangintza onartzea, baita haien jarraipenerako eta ebaluaziorako mekanismoak ere.
- Udaleko sail, arlo eta zerbitzuekin lan egitea eta koordinatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko programak eta ekintzak ezartzean.
- Erakunde publiko eta pribatuekin parte hartzeko eta lan egiteko harremanak eta bideak ezartzea, haien helburu edo eginkizunen arabera, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzeko.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko eskumenak dituzten erakunde, organo eta unitateekin komunikatzea.

|                                      |
|--------------------------------------|
| <b>SAILARTEKO BERDINTASUN TALDEA</b> |
|--------------------------------------|

## **Osaketa**

Sail eta zerbitzu guztiak eta udaleko erantzukizun-maila guztiak ordezkatzeko dituen organoa denez, gutxienez udaleko sail bakoitzeko pertsona bat izango da bertako kidea.

Berdintasuneko teknikaria koordinatzailea izango da.

## **Eginkizunak**

Bere eginkizunen eta zereginen azalpena III. Plan honetako gobernu onaren arloko ekintzetakoa denez, plana bera ezarritakoan zehaztuko dira. Nolanahi ere, honako hauexek izango lirateke eginkizun nagusiak:

- Ordezkatzen dituzten sailen artean komunikazio eraginkorrari eustea taldearekin berarekin.
- Ordezkatzen dituzten sailtako ekintzen diseinurako, ezarpenerako, jarraipenerako eta ebaluaziorako zereginetan parte hartzea.

- Bultzada berriko ekintzak proposatzea eta hobekuntzak edota lehendik dauden neurrietara egokitzeko eta aldatzeko proposamenak egitea.

## **PAREKOTASUN BATZORDEA**

### **Osaketa**

- Berdintasun Zinegotzigoa.
- Berdintasuneko teknikaria.
- Udalerriko emakumeen elkarteak eta elkarte zein talde feministak.
- Udalerriko elkarte eta talde soziokulturalak.
- Herritarrak.

Berdintasuneko teknikaria koordinatzailea izango da.

### **Eginkizunak**

Batzorde honen xedea eta helburuak berrikustea III. Planeko ekintzetakoa da, udaleko II. Planaren ebaluazioan lortutako emaitzak eta bertako kideen iritziak, pertzepzioak eta kezkek kontuan hartuta.

III. Plan honetan, berritasun moduan, Parekotasun Batzordeari eskatzen zaio bere jarduerak eskaintzen dituzten urteko programak egiteko eta proposatzeko, III. Planaren esparruan egokitzen jotzen dituzten ekintzen arabera aurrekontua zehazteko.

Ekintza hori noiz garatuko zain, hona hemen zenbait eginkizunen aurrerapena:

- Berdintasunaren arloan herritarren eta udalaren arteko lotunea izatea.
- Iritzi kritiko propositiboa sortzea eta aztertzeko gaitasuna edukitzea.
- Herritarren partaidetza eta dibertsitatea sustatzea batzordearen beraren osaketan.
- Planaren bultzadan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea.
- Planean antolatutako ekintzen eta inplikaturako eragileen ekintzen ezarpenean bete-betean parte hartzea eta proposatzea.
- Berdintasun Saila ebaluatzea eta aholkularitza ematea.
- Bultzada berriko ekintzak proposatzea eta hobekuntzak edota lehendik dauden neurrietara egokitzeko eta aldatzeko proposamenak egitea.
- Berezko ekintzak antolatzea, Parekotasun Batzordetik bertatik ezartzeko.
- Urteko jardueren proposamena aurkeztea Udalbatzan, onartzeko eta aurrekontua zuzkitzeko.

|                                     |
|-------------------------------------|
| <b>UDALAZ GAINDIKO KOORDINAZIOA</b> |
|-------------------------------------|

Udalak kide aktibo moduan parte hartzen jarraituko du udalaz gaindiko koordinaziorako eta lanerako ekimen hauetan:

**BERDINSAREA** - Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskal Udalen Sarea.

**BERDINBIDEAN** - Berdintasunaren arloko Aholkularitzarako eta Dinamizaziorako Zerbitzua 5.000 biztanletik beherako Bizkaiko udalentzat.

**LAIA ESKOLA** - Arabako Emakumeen Berdintasunerako eta Jabekuntzarako Eskola.

Berdintasuneko teknikaria udalaz gaindiko koordinazio eta lanaren arduraduna izango da.

## PROZESUAK

Berdintasunerako III. Plana kudeatzeko orduan, programaziorako, jarraipenerako eta ebaluaziorako prozesuak mobilizatzea proposatzen da, eta, izan ere, atzera elikatzen den etengabeko zikloa osatzen dute.

### PROGRAMAZIOA

III. Plan honetan zehaztutako helburuen eta ekintzen arabera, URTEKO PLAN ERAGILEA diseinatuko da urtero, eta Udalbatzan aurkeztu beharko da, bertan onartu dezaten.

Urtero, Berdintasun Sailak kasuan kasuko zirriborroa egingo du, eta Talde Sustatzailearekin zein Sailarteko Berdintasun Taldearekin erkatuko da, Udalbatzan onartzeko. Hori dela eta, ezarri aurretiko urteko azaroaren amaituta egotea proposatzen da.

Urteko plan horretan, urtero abian jarri beharreko ekintza berezi eta zehatzak azalduko dira, baita bakoitzarenak ere<sup>2</sup>:

- Ardatz estrategikoak, programak eta helburua.
- Ezarpeneko arduraduna.
- Inplikaturako sailak, zerbitzuak eta eragileak.
- Tenporalizazioa.
- Zenbatetsitako aurrekontua.
- Barruko eta kanpoko erakunde laguntzaileak, egon baleude.
- Zehaztutako adierazleen arabera aurreikusitako emaitzak.

---

<sup>2</sup> Programazioko Fitxa Ereduaren eranskinak ikusi.

## JARRAIPENA

Hobe da jarraipenerako mekanismoak ezartzea, antolatutako ekintzen betearazpen-maila ezagutzeko, elementu sustatzaileak modu arin bezain praktikoan antzemateko eta sortzen diren zailtasunei nahiz oztopoei aurre egiteko. Azken batean, jarraipenari esker, badago inguruabarretara egokitzerik, bidean motibatzerik eta zailtasunen ondorioz geldialdiak saihesterik, lanerako plana ezarri bitartean<sup>3</sup>. Beraz, jarraipenari esker, planaren etengabeko ebaluazioa ez ezik, azken ebaluazioa ere egingo da.

Prozesu hau Talde Sustatzaileak eta Sailarteko Taldeak gauzatuko dute, Berdintasuneko teknikariak lau hilean behin deitutako baterako lan-saioen bidez.

## EBALUAZIOA

Jarraipena planaren ezarpenean, betearazpenean eta garapenean txertatuta egon behar bada, prozesu osoaren atzera begirako azken begirada eskainiko du ebaluazioak. Beraz, bi prozesuak beharrezkoak eta osagarriak dira. Ebaluazioaren kontzepzio horren bidez, bi une proposatzen dira:

- a) *Urtero*, planaren indarraldi-urte bakoitzaren amaieran.
- b) *Amaieran*, indarraldi osoa bukatutakoan.

---

<sup>3</sup> Jarraipeneko Fitxa Ereduaren eranskinak ikusi.

#### ⇒ **Urteko ebaluazioa.**

Urteko plangintzan antolatutako ekintza zehatzak balioestea proposatzen da, faktore kuantitatiboak zein kualitatiboak eta planean bertan zehaztutako adierazleak eta egiaztatze mekanismoak kontuan hartuta<sup>4</sup>.

- Egindako ekintzen garapen-maila.
- Betearazpenik ezaren edota egindako aldaketen justifikazioa.
- Ekintzak garatzeko zailtasun-maila.
- Inplikaturako pertsonak.
- Baliabideak eta materialak.
- Gorabeherak.
- Zailtasunak eta irtenbideak.
- etab.

#### ⇒ **Azken ebaluazioa.**

Planaren indarraldia amaitutakoan, honako hauexen ebaluazio sakonagoa, zabalagoa eta osoagoa: plan osoaren betearazpen-maila, emaitzak eta udalerrian duen eragina.

Azterketarako metodologian, faktore kuantitatiboak eta kualitatiboak hartuko dira kontuan, eta zenbait iturritako informazioa biltzean lortuko da informazio hori: urteko ebaluazioak; plan eragileak; datuen bankuak; argitalpenak; sailen informazioa; politikariek, teknikariek eta herritarrek emandako informazio kualitatiboa; prozesuan sortutako agiriak; planean egiaztatze zehaztutako mekanismoak...

II. Planean bezala, kanpoko laguntza teknikoa beharko da ekintza horretarako.

---

<sup>4</sup> Ebaluazioko Fitxa Ereduaren eranskinak ikusi.

## **BERMERAKO NEURRIAK**

Atal honetan, hiru prozesu aipatzen dira berariaz, ekintza zehatzen bidez planean bertan identifikatuta eta antolatuta badaude ere. Balioesteko jarri behar dira abian, haiek barik ez dagoelako bermatuta ekintzak ezartzeko prozesua behar bezala gauzatuko dela.

### **PRESTAKUNTZA**

Hona hemen hartzaileak: funtsezko pertsonak eta eragileak, teknikariak nahiz politikariak, Parekotasun Batzordea eta planean bete-betean parte hartzen duten beste eragile sozial batzuk.

Prestakuntza egin baino lehen, premiak antzeman beharko dira, eta, ezinbestean, planean zehaztutako helburuak lortzea izango da xedea.

### **KOMUNIKAZIOA**

Funtsezko prozesu hau plana bera onartzen denetik hasi beharko da, planaren ezagutza, zabalkundea, jarraipena eta ebaluazioa lortzeko.

Komunikazioa barrukoa eta kanpoko izan beharko da. Horretarako, hurbileko eta eragineko bideak zein estrategiak atondu eta erabili behar dira, mezu eta eduki eskuragarri bezain adierazgarrien bitartez.

Bermerako neurri hau oso nabaria da Urduñako Udalaren kasuan, II. Planaren ebaluaziotik ateratako datuak eta plan hau egitean antzemandako oztopoak kontuan hartuta.

## PARTAIDETZA

Partaidetza estrategia moduan eta planaren beraren nortasunaren balio moduan ulertzen da. Planaren azken helburua aldaketa sozial eta kulturala sustatzea denez, ezinbestekoa da eragile sozial guztiek parte hartzea.

Beraz, funtsezkoa da ezarpenerako, jarraipenerako eta ebaluaziorako partaidetzazko estrategiak sortzea; planaren izaerari berari eta bere neurriei zentzua ematen dietenei hitza ematea, ezarpena bermatu behar dutenei bezala; eta premiak, eskaerak zein interesak biltzea, baita gogobetetasun-maila ere, elkarrizketaren eta komunikazio horizontalaren bitartez.

Azken batean, udalerrian bertan, *“norbaitekin egitea”* sustatzea *“norbaitentzat egitea”* barik, ikuspegi kooperatiboa eta lankidetzapekoa kontuan hartuta.

---

# ERANSKINAK

---

**EREDUA: Ekintzen Programazioko Fitxa.**

|                                                                      |                               |                               |                               |
|----------------------------------------------------------------------|-------------------------------|-------------------------------|-------------------------------|
| Data: ____ / ____ / ____                                             |                               |                               |                               |
| III. PLANAREN KOKAPENA                                               |                               |                               |                               |
| Ardatz estrategikoa                                                  |                               |                               |                               |
| Programa                                                             |                               |                               |                               |
| Helburua                                                             |                               |                               |                               |
| AZALPENA                                                             |                               |                               |                               |
| Ekintza-kopurua                                                      |                               |                               |                               |
| Ekintzaren enuntziatua                                               |                               |                               |                               |
|                                                                      |                               |                               |                               |
| Arduraduna/k                                                         |                               |                               |                               |
|                                                                      |                               |                               |                               |
| Inplikaturako sailak, zerbitzuak eta eragileak                       |                               |                               |                               |
|                                                                      |                               |                               |                               |
| Garapenaren urtea                                                    | <input type="checkbox"/> 2020 | <input type="checkbox"/> 2021 | <input type="checkbox"/> 2022 |
| Aurreikusitako hasierako eta amaierako hilabetea                     |                               |                               |                               |
|                                                                      |                               |                               |                               |
| Zenbatetsitako aurrekontua                                           |                               |                               |                               |
|                                                                      |                               |                               |                               |
| Barruko eta kanpoko erakunde laguntzaileak                           |                               |                               |                               |
|                                                                      |                               |                               |                               |
| III. Planean zehaztutako adierazleen arabera aurreikusitako emaitzak |                               |                               |                               |
|                                                                      |                               |                               |                               |

**EREDUA: Ekintzen Jarraipeneko Fitxa**

|                                                    |                                                          |                               |                               |
|----------------------------------------------------|----------------------------------------------------------|-------------------------------|-------------------------------|
| Data: ____ / ____ / ____                           |                                                          |                               |                               |
| III. PLANAREN KOKAPENA                             |                                                          |                               |                               |
| Ardatz estrategikoa                                |                                                          |                               |                               |
| Programa                                           |                                                          |                               |                               |
| Helburua                                           |                                                          |                               |                               |
| AZALPENA                                           |                                                          |                               |                               |
| Ekintza-kopurua                                    |                                                          |                               |                               |
| Ekintzaren enuntziatua                             |                                                          |                               |                               |
|                                                    |                                                          |                               |                               |
| Arduraduna/k                                       |                                                          |                               |                               |
|                                                    |                                                          |                               |                               |
| Inplikaturako sailak, zerbitzuak eta eragileak     |                                                          |                               |                               |
|                                                    |                                                          |                               |                               |
| Garapenaren urtea                                  | <input type="checkbox"/> 2020                            | <input type="checkbox"/> 2021 | <input type="checkbox"/> 2022 |
| Aurreikusitako hasierako eta amaierako hilabetea   |                                                          |                               |                               |
|                                                    |                                                          |                               |                               |
| EKINTZAREN GAUR EGUNGO BETEARAZPEN-MAILA           |                                                          |                               |                               |
| Eginda eta amaituta                                | Prozesuan                                                | Hasi gabe                     |                               |
|                                                    |                                                          |                               |                               |
| Aurreikusitako egutegia (UU/HH)                    | Data honetan zenbatetsitako/ezagututako egutegia (UU/HH) |                               |                               |
|                                                    |                                                          |                               |                               |
| Zenbatetsitako aurrekontua                         | Data honetan zenbatetsitako/ezagututako aurrekontua      |                               |                               |
|                                                    |                                                          |                               |                               |
| Aurreikusitako emaitzak                            | Data honetan zenbatetsitako/ezagututako emaitzak         |                               |                               |
|                                                    |                                                          |                               |                               |
| Ekintza ezartzean antzemandako zailtasunak         |                                                          |                               |                               |
|                                                    |                                                          |                               |                               |
| Antzemandako zailtasunei aurre egiteko estrategiak |                                                          |                               |                               |
|                                                    |                                                          |                               |                               |

**EREDUA: Ekintzen Ebaluazioko Fitxa**

|                                                         |                               |                                |                               |
|---------------------------------------------------------|-------------------------------|--------------------------------|-------------------------------|
| Data: ____ / ____ / ____                                |                               |                                |                               |
| <b>III. PLANAREN KOKAPENA</b>                           |                               |                                |                               |
| Ardatz estrategikoa                                     |                               |                                |                               |
| Programa                                                |                               |                                |                               |
| Helburua                                                |                               |                                |                               |
| <b>AZALPENA</b>                                         |                               |                                |                               |
| Ekintza-kopurua                                         |                               |                                |                               |
| Ekintzaren enuntziatua                                  |                               |                                |                               |
|                                                         |                               |                                |                               |
| Arduraduna/k                                            |                               |                                |                               |
|                                                         |                               |                                |                               |
| Inplikaturako sailak, zerbitzuak eta eragileak          |                               |                                |                               |
|                                                         |                               |                                |                               |
| Garapenaren urtea                                       | <input type="checkbox"/> 2020 | <input type="checkbox"/> 2021  | <input type="checkbox"/> 2022 |
| Aurreikusitako hasierako eta amaierako hilabetea        |                               |                                |                               |
|                                                         |                               |                                |                               |
| <b>EKINTZAREN BETEARAZPEN-MAILA</b>                     |                               |                                |                               |
| Eginda eta amaituta                                     | Prozesuan                     | Hasi gabe                      |                               |
|                                                         |                               |                                |                               |
| Aurreikusitako egutegia (UU/HH)                         |                               | Betearazitako egutegia (UU/HH) |                               |
|                                                         |                               |                                |                               |
| Aurreikusitako aurrekontua                              |                               | Betearazitako aurrekontua      |                               |
|                                                         |                               |                                |                               |
| Aurreikusitako emaitzak                                 |                               | Lortutako emaitzak             |                               |
|                                                         |                               |                                |                               |
| Antolatutakoaren eta betearazitakoaren arteko aldaketak |                               |                                |                               |
|                                                         |                               |                                |                               |
| Etorkizunean kontuan hartu beharrekoa                   |                               |                                |                               |
|                                                         |                               |                                |                               |



**123. or.**

Urduñako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2020-2022)